

ZAKILIXUT

© Olariagak



Agatha, besterik ez

■ Agatha Ruiz de la Pradaren diseinuen erakusketa Bilbao Arte aretoan

NOLA deskriba daiteke Agatha? Arraroa, bitxia, deigarria, orijinala... Agatha Ruiz de la Pradaren diseinuak bereizteko gai ez den norbait aurkitzea zaila da, nahiz eta gure kaleetan ez den batere ohikoa haren diseinuren bat eramaten ausartzen denik ikustea. Orduan, zergatik da hain ezaguna eta arrakastatsua? Erantzuna Agatha bera bezain konplexua da.

Agatha diseinatzaile madrildarra Bilbora etorri zen, bere diseinuak eta marrazkiak biltzen dituen erakusketa inauguratzera. Agatha ez zen, baina, Guggenheimera etorri, ez eta Euskalduna jauregira ere, Bilbo Zaharrera baizik. Bertan Bilbao Arte erakusketa aretoa dago, lehenengo urratsak egiten ari diren artistek beren obra zabaltzeko aukera izan dezaten sortutako areto modernoa. Areto mota horiek ezagunak izateko, baina, jendearen arreta jaso behar dute. Horretarako, noizean behin pertsona famatuen erakusketak tartekatzea erabaki dute, existitzen diren pribilegiozko eremuan sartu nahian.

Nahi izan eta lortu, inaugurazio-



Diseinu berezi-bereziak ikus daitezke erakusketan, diseinatzailea bera bezain bereziak.

an bildutako jendetza izugarria izan zelako. Eta izugarria, kantitateari eta, bereziki, kalitateari dagokionez, bertaratu ziren pertsona mota guztiak beste edonon elkartzea oso lan zaila izango litzaitekeelako. Erakusketa ikusteko asmoz joan zirenek ilea berde biziz, azenario kolorez edota sumendiko labaren gorriaz tindatua zuten, oinetako plataformadunak edota argazki negatiboez osaturiko soinekoa. Horiek Agatharen jarraitzaile sutsuak ziren, duda barik. Beste alde batetik, han ziren arratsaldeetako talk-show-ak ikusteaz aspertuta, telebistan agertzen diren ospetsuak benetan nolakoak diren ikustera joan zirenak. Bilbao Arte aretoko solairuetan harrituta zebiltzan horiek, hainbeste jende arraro batera ez zutela sekula ikusi esanez.

Jana eta edana doan

Azkenik, gero eta ohikoagoa den jende mota bat aurkitu genuen: erakuske-

ten inaugurazioetara doan jatera eta edatera joaten direnak. Multzo horretan zeuden Arte Ederretako ikasle Amaia eta Ikus-entzunezkoetako Xuban. Bilbon ikasten ari diren lasartear horiek ez ei zuten egiteko gauza hobarik eta...

Agatha ohiko moduan iritsi zen, orijinal. Goroldiozko bihotzak erantsita zituen soineko laranja tirantedun battez jantzia, ile gorria, ez orraztuaren itxuran, eta abarketako moduko sokekin lotutako zapata gorriak, oso makilaje gutxi, inolako bitxi barik, eta autografo eske zetorkion jendearekin jator. Bi ordutan eskaileretan gora eta behera, batzuk aspaldian ikusi gabeko lagunekin hizketan, kopak edaten, besteak bideo pantaila handian agertzen ziren desfileei begira... Erakusketak ikusteko, baina, beste edozein une da egokiagoa, hainbeste jenderen artean bigarren mailan geratu baitzen arropen zegoen protagonismoa.

Kristina Martin

BILBO

kasu!

► Azterketetako larritasuna arnasaren bidez gainditu

Honezkero ikasturte erdiko azterketak aspaldi ahaztu- xeak izango dituzte ikasleek. Baten batek oraindik tran- tze txar hori pasatzeko bal- din badauka, ordea, hona hemen gomendio bat: liburu eta apunte aurrean jartzera- ko larritasunak erasotzen badizu, lasaitu eta hartu ar- nasa sakon. Berehala kon- turatuko zara pentsatzeko gaitasuna itzuli zaizula. Go- mendioa eraginkorra gerta- tzen ez bada, ez guri bota errua, Madrilgo Unibertsita- te Europarrean bildu diren psikopedagogoei baizik.

► Autoa lapurtzera joan eta barruan loak hartu

Xelebrea dirudi, baina hori- xe gertatu zitzaion igandean Donostian lapur kaskar sa- mar bati. Sarraila labanaz behartu eta barrura sartu zen; nonbait, barruan ezerk ez zuen tentatu, beraz han- ka egin beharrean deskan- tsua hartzen geratu zen ba- rruan. Autoaren jabeak lo sakonean topatu zuen han- dik gutxira.

► 50.000 tonako harritzarrak Donostiako Paseo Berrian

Ekaitzak gogor jotzen due- nean olatuak berriz ere etxe barruetaraino sar ez daite- zen, Donostiako Paseo Be- rrian 50.000 tonako harrit- zarrak jarriko dituzte itsa- sertzean. Salamanca ibilbi- dean jada garabi handi bat prest daukate eta bihar ha- siko dira arroka handiak itsaso ondoan jartzen.

BONOTXOTX GURUTZETA

Sagardotegi Menua - 5 Afari
14.000 pta. + inguruk

Agatha DOHAINIK RTZ-AL BARRU

Astelehena, astearte eta
asteazkenetan Gurutzeta
Sagardotegian prestatu berria
1xotx-aren zaleentzat

URGOLIA POLIGONOA - Oribide bidea 63
48115 ASTIGARRA (SUJECION PERMANENTE)
☎ 943 55 22 42